BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
19/01/15

# Batzar Nagusiek Euskotrenen Txorierriko zerbitzua eta Metroaren 3. linea integretearen aldeko ekimena onetsi dabe

Bizkaiko Batzar Nagusietako Garraio, Mobikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako Batzordeak, Talde Popularreko ordezkariaren abstentzino bakarragaz eta kontrako boto barik, EH Bildu taldeak egindako arauz besteko proposamen bat onetsi dau, Foru Aldundiari “Bizkaiko Garraio Partzuergoko buru dan neurrian, erakunde horretan Euskotrenen Txorierriko zerbitzua Metroaren 3. linean sartzea bultzatu daian” eskatzeko.

Ekimena sustau dauen Batzarretako taldeak adierazo dauenez, ekimenaren jatorria, Barik txartel multimodala martxan jarteak L3 linea erabilten dabenen (Kukullaga eta Matiko artean) eta Euskotrenen linea erabilten dabenen (Lezamaraino jarraitzen dau) arteko egoera “guztiz baztertzailea” erakutsi dauela da. Lehenengo kasuan ez da beharrezkoa garraio aldaketak ordaintzea Metroaren 1. edo 2. linea hartzeko, eta bigarrenean, barriz, bai.

Foru Gobernua eusten daben taldeek (Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak) eta oposizinoaren parte garrantzitsuak (Podemos Bizkaia eta Talde Mistoa, proposamena aurkeztu dauen taldeaz gain), modu positiboan balorau dabe ekimena, eta euren botoagaz babestu dabe. Dana dala, bozeroale sozialistak horrek dakarzan gaiztasun teknikoak aitatu ditu, eta ezinbestekoa dala beste administrazino publiko batzuekaz berba egitea, konponbidea aurkitzeko. Talde Popularreko ordezkaria, bere aldetik, abstenidu egin da, esanez ez dagola ados arauz besteko proposamenaren azalpeneko zatiagaz, eta eskumen esparru desbardin bi dagozala azpimarratu dau, Bizkaiko Garraio Partzuergoa eta Eusko Jaurlaritzan horregaz arduratzen dan Saila.

<u>Bizkaibusen emakidadunen berrorekarako ordainketea</u>
Ekimen hori onetsi aurretik, Garraio, Mobikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako Batzordeak, Miguel Ángel Gómez Viar Foru Diputatuaren agerraldia jaso dau, berak eskatuta. Bizkaiko Foru Aldundiaren esku dagon garraio publikoaren arduraduna, joan dan 2018ko abenduaren 26an Bizkaibusen emakidadunei berrorekatzeko egin eutsen ordainketea azaltzeko etorri da Batzar Nagusietara.

Bizkaiko Foru Erakundeak 17,4 milioi euro bideratu ditu 2014-2018 epealdian Bizkaibus garraio publiko zerbitzua eskaintzen daben bost enpresa emakidadunetara. Barruko eta kanpoko hainbat azterlanetan oinarritzen dan txosten tekniko-juridikoak agerian itzi eban lehiaketa publikoen pleguetan –2012an idatzitakoetan– jasoten ziran beharginen kostuen aurreikuspenean desfasea egoala benetako kostuakaz alderatuta.

Garraio Diputatuak, 2015etik egin diran txostenez, azterlan juridikoz eta auditoretzaz osatutako prozesu luze eta konplexua azaldu dau, eta baita Foru Administrazinoaren akatsen ondorioz emakidak apurtzeko zergaitiak be. Hori dala eta, zerbitzuaren balorazino ekonomiko barria egin behar izan da. Gómez Viarrek adierazo dauenez, hartutako konponbideak abal tekniko guztiak ditu, eta Bizkaibusen zerbitzua 2024ra arte bermatzen dau, eta esan dau ez daukala ezelango loturarik enpresa emakidadun batzuei jagoken grebeagaz.

Oposizinoaren aldetik, Talde Mistoaren bozeroaleak bere harridurea erakutsi dau enpresei konpentsazinoak emotera zuzendutako kopurua ikusita. Alderdi Popularreko ordezkariak informazino faltea azpimarratu dau, bere taldeak, behin eta barriro, Garraio Sailak egindako auditoretza txostenak eskatu ditualako, ezer lortu barik. Podemos Bizkaia taldetik kritikau egin da enpresei emondako diruak ez dauela Bizkaibus zerbitzua jasaten ari dan grebaren amaierea ekarri. Eta EH Bilduk lanpostuen amortizazino prozesuaren salaketea azpimarratu dau, eta emakidadunak "pozik eta eskertuta" egon behar dirala esan dau. Une honetan indarrean dagon lan gatazkearen arduraduna Garraio Saila dala esan dau, bere eretxiz arazoa aspalditik ezagutzen zalako eta ez dalako ezer egin konponduteko.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
15/01/19

# Las Juntas Generales aprueban una iniciativa a favor de integrar el servicio de Euskotren del Txorierri y la Línea 3 del Metro

La Comisión de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado esta mañana, con la única abstención del representante del Grupo Popular y ningún voto en contra, una Proposición No de Norma de EH Bildu que insta a la Diputación Foral a que "en la medida que preside el Consorcio de Transportes de Bizkaia, impulse en dicho órgano la integración del servicio de Euskotren del Txorierri en la Línea 3 del Metro".

El origen de la iniciativa está, de acuerdo con el grupo juntero promotor de la misma, en que la puesta en marcha de la tarjeta multimodal Barik ha revelado una situación "absolutamente discriminatoria" entre quienes utilizan la L3 (entre Kukullaga y Matiko) y quienes hacen uso de la línea de Euskotren (que le da continuidad hasta Lezama). En el primer caso no es necesario abonar transbordos para tomar las líneas 1 o 2 del Metro, y sí lo es en el segundo.

Tanto los grupos que sustentan el Gobierno foral (Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos) como buena parte de la oposición (Podemos Bizkaia y Grupo Mixto, junto al propio grupo proponente) han valorado positivamente la iniciativa y la han apoyado con su voto, si bien el portavoz socialista ha puesto de manifiesto las dificultades técnicas implícitas y el necesario diálogo con otras administraciones públicas para abordar la solución. Por su parte, el representante del Grupo Popular se ha abstenido alegando su desacuerdo con la parte expositiva de la Proposición No de Norma, y ha subrayado la existencia de dos ámbitos competenciales distintos, como son el Consorcio de Transportes de Bizkaia y el Departamento correspondiente del Gobierno Vasco.

Pago de reequilibrio a las concesionarias de Bizkaibus

Previamente a la aprobación de esta iniciativa, la Comisión de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio ha registrado la comparecencia, a petición propia, del diputado foral Miguel Ángel Gómez Viar. El responsable del transporte público dependiente de la Diputación Foral de Bizkaia ha acudido a Juntas Generales para explicar el pago del reequilibrio a las concesionarias de Bizkaibus, aprobado por el Consejo de Gobierno el pasado 26 de diciembre.

El Ejecutivo Foral de Bizkaia ha destinado 17,4 millones de euros a las cinco empresas concesionarias que prestan el servicio de transporte público Bizkaibus para el periodo 2014-2018. Un informe técnico-jurídico, con soporte de diversos estudios propios y externos, puso de manifiesto un desfase en la estimación de los costes de personal recogidos en los pliegos de los concursos públicos –redactados en 2012- en relación con los costes reales.

El diputado foral de Transportes ha expuesto el largo y complejo proceso de informes, estudios jurídicos y auditorías llevado a cabo desde 2015, y las causas de ruptura de las concesiones imputables a errores de la Administración foral, que han obligado a una nueva valoración económica del servicio. Gómez Viar ha asegurado que la solución adoptada tiene todos los avales

técnicos y garantiza el servicio de Bizkaibus hasta 2024, y la ha desvinculado de la actual huelga que afecta a una parte de las empresas concesionarias.

Por parte de la oposición, el portavoz del Grupo Mixto ha manifestado su sorpresa por la magnitud de la cantidad destinada a compensar a las empresas. El representante del Partido Popular ha puesto el acento en la falta de información, ya que su grupo ha solicitado sin éxito, en reiteradas ocasiones, los informes de auditoría realizados por el Departamento de Transportes. Desde Podemos Bizkaia se ha criticado que la inyección económica a las empresas no haya propiciado el final de las huelgas que afectan al servicio de Bizkaibus. Y EH Bildu ha incidido en su denuncia del proceso de amortización de puestos de trabajo, ha señalado que las concesionarias deben estar “contentas y agradecidas”, y ha responsabilizado al Departamento de Transportes por el conflicto laboral vigente, por entender que el problema se conocía desde hace mucho tiempo y no se ha hecho nada por solucionarlo.